

JARDUNALDIA

Maskulinitate berdinzaleak eta kultur aniztasuna



2022ko azaroaren 9a asteazkena
Yohn Jauregia - La Bolsa
Ganbara aretoa. Pilota kalea, 10. 48005 Bilbo
10:00 - 14:00

Emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak eraldatzea da berdintasun arloko politika publikoen helburuetako bat. Horretarako, gizonak berdintasunarekiko dituzten jarrerak aldatzea politika horien esku-hartzerako ardatza bilakatu da. Emakumeen giza eskubideak osotasunean onartzen dituen jendartea lortzeko, beharrezkoa da maskulinitateen eraikuntza sozialari eta kulturalari arreta jartzea eta alternatibak bilatzea.

Kulturarteko begirada eta begirada interseksionala oinarri hartuta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko orduan gizonen sozializazioak duen inpaktua sakon aztertuko dute jardunaldi honetan.

Helburuak

- Gizonak eta jendarteak berdintasuna onartzeari dagokionez, egindako bidea eta lortzeko dauden erronkak bistaritzea.
- Maskulinitate-eredu tradizionalak deseraikitzeo eta berdintasunaren bidean aurrera egiteko helburuz gizon etorkinekin, ijitoekin eta arrazalazatuekin izandako esperientziak eta horiei zuzendutako lan-egitasmoak partekatzea.
- Ikuspegi kritiko batetik, erakunde publikoak eta sozialek gizonekin egiten duten lanaren inguruan eta lan horrek emakumeen eta gizonen botere-harremanen eraldaketan duen inpaktuaren inguruan hausnartzea.

Hartzaileak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, maskulinitate berdinzaleen eta kultur aniztasunaren kudeaketaren inguruko interesa eta inplikazioa dituzten eragile instituzional eta sozial guztiei zuzenduta dago jardunaldi hau.

Egitaraua

10:00 – 10:20	Inaugurazioa
10:20 – 11:30	Ponentzia markoa: Helburu bakarra, askotariko estrategiak: gizonen artean berdintasunezko kontzientzia sustatzea, kultura-aniztasunarekiko begirada sentikor batetik abiatuta. <i>Martín Frasso: Gizarte eta Kultura Antropologoa. Bartzelonako testuinguruan indarkeria matxista identifikatu eta desagerrarazteko gizonen laguntzeko egungo teknikaria.</i>
11:30 – 11:55	Kafea
11:55 – 13:50	Mahai-ingurua Esperientzia hezurmamituak: berdintasunezko maskulinitateak eraikitzen kulturarteko ikuspegitik. <i>- Mamadou Ngom: kulturarteko bitartekaria, Munduko Medikua Euskadi.</i> <i>- Moufdi Kamel/Mateus Cordeiro: Biltzen</i> <i>- Rosa Jiménez/Roberto Jiménez: Sim Romi emakume ijitoen elkartearen presidentea eta Kalé Dor Kayikó elkarte ijitoan bitartekaria/ bitartekari soziokulturala Kalé Dor Kayikó elkartean.</i> <i>Moderatzailea: Ander Bergara, Emakunde</i>
13:50 – 14:00	Ondorioak eta amaiera - Biltzen.

Informazio gehiago

688 64 87 45

Inskripziorako epe-muga

Azaroaren 8raino

Inskripzioak

<https://labur.eus/Sfg3w>

Zuzendaritza teknikoa

Biltzen - Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua

Antolatzailea

Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza